

9. ikasgaia.

ANTOLAKUNTZA JUDIZIALA (II): ORGANOAK

1. Botere judizialaren antolakuntza gisa: pertsona bakarreko organoak (epaitegiak) eta organo kolegiatuak (auzitegiak)

Botere judizialaren antolakuntzaren eta BJ-jurisdikzioaren arteko desberdintasuna

Pertsona bakarreko organoak eta organo kolegiatuak

2. Epaitegien eta auzitegien osaketa

Pertsona bakarreko organoak:

Beharrezkoak: epailea eta idazkari judiziala

Postuak betetzeko bideak:

a) Epaileentzat:

- Epaileen arteko ordezkapena (BJLOaren 210. eta 211. art.)
- Ordezko epailea izendatzea (BJLOaren 212.2. art.)
- Jurisdikzio-luzapena (BJLOaren 214. art.)
- Zerbitzu-betekizuna (BJLOaren 216. art.)
- Aldi baterako hornitzea/betetzea (BJLOaren 428. art. eta hurrengoak)

b) Idazkariantzat:

- Idazkarien artean
- Ofizialen ordezkapena
- Aldi baterako hornidura/betetzea

Organo kolegiatuak:

a) Magistratuentzat:

- Magistratuen artean (BJLOaren 199. art.)
- Ordezko magistratuen bidez
- Zerbitzu-betekizuna

b) Magistratu txostengilearentzat:

- Organo kolegiatuen antolakuntza
- Magistratu txostengilea gehiengoaren kontra

1. BOTERE JUDIZIALA ANTOLAKUNTZA GISA: PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK (EPAITEGIAK) ETA ORGANO KOLEGIATUAK (AUZITEGIAK)

Aurreko ikasgaietan azaldu dugun Botere Judizialaren antolakuntzaren eta jurisdikzioaren arteko ezberdintasuna gogoan izan behar dugu, ikasgai honetan Botere Judizialaren Lege Organikoan aipatutako organo jurisdikzionaleri buruz bakarrik mintzatuko baikara; gainontzekoak –hau da, jurisdikzioa duten baina Botere Judizialaren antolakuntzan ez dauden organoak– ez ditugu aztertuko. Horrenbestez, epaile eta magistratu arrunten estatutua eta epaitegi eta auzitegi arrunten antolakuntza izango dugu aztergai –Botere Judizialaren Lege Organikoan xedatutakoa, hain zuzen ere-, gainontzeko estatutu bereziak alde batera utziz (adibidez, Konstituzio Auzitegiaren magistratuen Estatutua Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoan agertzen dena).

Botere Judizialaren antolakuntza aztertzen hasi aurretik, antzeman dezakegu gai hori legezko epailearen printzipioarekin hertsiki lotuta dagoela. Printzipio horren arabera, jakingo dugu, besteak beste, gatazka jakin bat ebatziko duen epailea nor den, eta baita haren ordezkoa nor izan litekeen ere. Printzipio hori errespetatu beharrak, beraz, harreman estua du organo jurisdikzionalen osaketa eta funtzionamenduari buruzko arauekin.

Bukatu aurretik, **pertsona bakarreko organo eta organo kolegiatuen** arteko ezberdintasuna nabarmendu nahi dugu; eta, aurreko ikasgaietan aipatu genuen bezala, alde batetik, pertsona batek osatutako organoak izango ditugu (bake-epaitegiak eta lehendabiziko auzialdi edo instantziako epaitegiak) eta, bestalde, pertsona batzuek osatutakoak (Auzitegi Nazionala, Auzitegi Probintzialak, Auzitegi Gorena eta Justizia Auzitegi Nagusiak).

Organo kolegiatuen antolakuntzari buruz, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 196. artikuluan adierazten denari jarraiki, oro har, honako hau baieztatu dezakegu: “legeak besterik xedatzen ez duenean, nahikoa izango dira hiru magistratu gela eratzeko”. Hori aintzat hartuta, auzitegiek geletan lan egiten dutela argitu beharra dago (zibileko gela, penaleko gela, eta abar); eguneroko antolakuntzari begira, gela horiek ataletan banatuta egon daitezke

(adibidez, Justizia Auzitegi Nagusiko zibil-penaleko 1.,2. atala). Dena den, Auzitegi Probintzietan ez dugu gelarik aurkituko, bakarrik ataletan lan egiten dute eta (Probintzia Auzitegiko 1., 2. atala).

2. EPAITEGI ETA AUZITEGIEN OSAKETA

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

Epaitegietan funtzio jurisdikzionala egikaritzeko, alde batetik **epaileak** eta, bestetik, **idazkari judizialak** egon behar dute nahitaez epaitegian; beraz, pertsona bakarreko organoek zuzen edo era egokian osatzeko, biek egon behar dute.

Baina, esan bezala, litekeena da epaile edo idazkaria momentu jakin batean ez agertzea, adibidez, gaixorik edo haurdun egoteagatik; hau da, azken finean, baliteke postu bat bete gabe geratzea. Kasu horietarako, Botere Judizialaren Lege Organikoak postua betetzeko mekanismo batzuk aurreikusi ditu, epaileentzat eta idazkariarentzat, hurrenez hurren:

a) Epaileentzat:

Lege Organikoak postuak betetzeko lau bide ematen dizkigu, subsidiarioki aplikatu beharreko lau bide, hain zuzen ere.

Lehendabizikoa **epaileen arteko ordezkapena** dugu, Lege Organikoaren 210. eta 211. artikuluetan xedatuta dagoena. Bide horren arabera, jurisdikzio-ordena bereko eta herri bereko beste epaile batek ordezkatu du agertu ez den epailea.

Dena den, jurisdikzio-ordena bereko epaileak ordezkapena egitea ezinezkoa izango balitz (hiri berean mota bereko epailerik ez dagoelako, edo ordezkapena egiteko aukerak agortu direlako), herri edo hiri bereko beste epaile batek, baina beste jurisdikzio-ordena batekoak, ordezkatu luke (ordena zibileko epaile baten orde, adibidez, lan-ordenako bat jarriko litzateke).

Ordezko epailea izendatzea da ordezkapena aurrera eramateko bigarren bidea (Lege Organikoaren 212.2 artikuluan). Horren bidez, lehendabiziko bidea

aplikatzea ezinezkoa denean, ordezeko epaile bat izendatzen da hutsunea betetzeko. Aipaturiko artikulua dioen moduan, ordezeko magistratuak izendatzen diren era berean izendatzen dira ordezeko epaileak. Hala ere, izendapen horiek ez-ohikoak izango direla aintzakotzat hartu beharrean gaude; ondorioz, horien beharra dagokion moduan motibatu beharko da. Horrez gain, tutelapean praktikak egiten ari diren epaileek edo laguntzaileak direnek ordezkapena egiteko lehentasuna izango dute, BJLOaren 308.2 eta 307.1 artikuluek dioten bezala.

Auzitegi Nagusien Gobernu Gelek, urtero, ordezkapenak egiteko zerrenda bat helarazten diote Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, berak onar dezan. Zerrenda horietan egoteko, karrera judizialean sartzeko baldintzak (6. ikasgaien aipaturikoak, hau da espainiarra, adinez nagusia eta zuzenbidean lizentziaduna izatea) betetzea nahitaezkoa da; hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago ordezeko epaile eta magistratuak Botere Judizialaren barruan sartuta ez daudela, hots, ez direla karrera judizialeko kide.

Horrez gain, ordezekoek funtzio jurisdikzionaletan diharduten bitartean, epaile arrunten bateraezintasun eta debeku berberak izango dituzte (BJLOaren 389. art.).

Beste alde batetik, zerrendetan agertzeak esan nahi du urte jakin horretan hutsune bat betetzeko prest egotea. Hau da, zerrendetan agertzen direnei iraupen ezberdineko –egun, aste, hilabete batekoak, esaterako– hutsuneak betetzeko dei diezaiekete; baina ez dute etengabe, hau da, urte osoan zehar, postu berean jardungo (maila teorikotik, bederen); postu horien izaera noizbehinkakoa da, alegia.

Zerrenda egiteko, batez ere pertsonen esperientzia juridikoa hartzen da kontuan, hala nola, funtzio judizialak edo idazkari judizialaren funtzioak bete izana, karrera fiskalean ordezeko gisa jardun izana, eta abar. (BJLOaren 201.3. art.).

Ordezkapena egiteko hirugarren bidea –eta soilik aurretik azaldutakoak ezinezkoak direnean- **jurisdikzio-luzapena** izango genuke; horren bidez, herri bateko epaileak, berari dagozkion gaiak ez ezik –hau da, bere epaitegiko gaiak ez ezik –beste herri bateko epaitegikoak ere ebatziko ditu, Lege Organikoaren 214. artikulua esaten duen moduan. Neurri hori Auzitegi Nagusien Gobernu

Gelek hartuko dute, baina, ondoren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren onarpena jaso beharko du (214. eta 215. artikulua). Ordezko epaileak – ordezkatzen duenaren maila eta ordena berekoa izango denak– bi kargu izango ditu bere gain, jurisdikzio-luzapenaren ondorioz: bere hiriko epaitegiko gaiez arduratuko da eta baita beste hiriko epaitegietakoez ere.

Bukatzeko, **zerbitzu-betekizuna** da ordezkatzeko laugarren bidea. Horren bitartez, herri edo hiri bateko epailea beste herri bateko epaitegi jakin batera joango da horko gatazkak ebazteko, baina, kasu horretan, jurisdikzio-luzapenean ez bezala, haren jatorrizko epaitegia epaile gabe geratuko da. Beraz, epailea epaitegi batetik kentzen dute beste batean jartzeko.

Ez-ohikoa den bide hori martxan jartzeko, legeak **inguruabar batzuk** eskatzen ditu (BJLOaren 216. artikuluan):

- Denbora zehatz baterako izango da.
- “Beharrian bereziko inguruabarrak” egotea eskatzen du legeak; hots, behar-beharrezkoa izan beharko du.
- Epailearen adostasuna nahitaezkoa da.
- Zerbitzu-betekizunak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak onartzen ditu (BJLOaren 216.2. artikulua).

Aipatutako lau bide horiez gain, ez-ohikoa den beste bat ere badago, **aldi baterako hornidura**, hain zuzen ere (BJLOaren 428. eta hurrengo artikulua). Xedapen horien arabera, oposizioen eta lehiaketen bidez bete gabe geratu diren epaitegiak bide horretatik bete daitezke eta, ondorioz, ikus dezakegu ordezkapena egiteko bidea baino epaile titularrik gabeko epaitegiak betetzeko erabiltzen dela.

Ez-ohiko modu horretan beteko diren postuen kopurua finkatzeko, urtero, Auzitegi Nagusien Gobernu Gelek txosten bat egiten dute aldi baterako epaileak hornitzeko beharra duten epaitegiak zenbat diren esateko; gero, Kontseilu Nagusiak onartu beharko ditu postu horiek.

Postu jakin horiek betetzeko, beste zerrenda bat egiten da; horretan izena eman ahal izateko, Botere Judizialean sartzeko baldintzak bete beharko dira. Zerrenda horren lehentasun-hurrenkera ezartzeko, Lege Organikoaren 431.2 artikuluan ageri diren merezimenduak kontuan hartzen dira, besteak beste,

zuzenbidean doktore izatea, funtzio judizialak bete izana, eta abar. Behin izendapena jazota, urte baterako izango da, eta beste baterako luza daiteke, Lege Organikoaren 432.2 artikulua dioen moduan. Urte horretan zehar, printzipioz, epaileek etengabe jardungo dute beren lanpostuetan.

b) Idazkarientzat:

Idazkari judizialak ordezkatzeko bidea Botere Judizialaren Lege Organikoaren 451. artikuluan aurki dezakegu. Artikulu horrek dioen moduan, ez agertzeagatik, gaixotasunarengatik, kenteagatik hutsik dauden postuen edo bestela bete gabeko postuen ordezkapena idazkarien nagusi hierarkiko hurbilenak izendatutako pertsonak beteko du. Ordezkapen funtzio hori idazkari judizial edo idazkari judizial ordezko batek har dezake soilik.

Salbuespen gisa, kudeaketa prozesal eta administratiboko kidegoko funtzionarioek fede-emaile gisa jardun ahal izango dute eta dagokion agiria idatzi, Lege Organikoaren 451.3 artikulua dioenaren arabera.

ORGANO KOLEGIATUAK

a) Magistratuak:

Organo kolegiatuen kasuan, ordezkapenak egitea errazagoa da epaileen kasuarekin alderatuta, kide anitzeko organoak izanik zenbait magistratuk osatzen baitute eta, ondorioz, haien artean bete baitezakete ordezkapena. Ordezkapena aurrera eramateko bideak honako hauek dira: magistratuen arteko ordezkapena, ordezko magistratuen bidez egindakoa, eta zerbitzu-betekizuna.

Lehendabiziko bidea Lege Organikoaren 199. artikulua da; horren bidez, organo jurisdikzional bereko magistratuak **beren artean** ordezkatzeko dira aldeztuak aurretik ezarritako txandari jarraituz (adibidez, demagun Auzitegi Probintzian zibileko 2 gela daudela; bigarren gelako magistratu bat gaixorik balego, lehendabiziko gelako magistratu bat bigarrenera joango litzateke).

Baina baliteke organo jurisdikzional batean magistratu gutxi egotea, eta ondorioz beren arteko ordezkapenak egitea ezinezkoa izatea; kasu horietan **ordezko magistratuen bidez** betetzen dira hutsune horiek.

Ikasgai honetan aurretik ordezko epaileari buruz aipatu ditugun betekizun eta inguruabar berberak aplikagarri izango zaizkie magistratuei ere; hala nola, zerrenda bat egotea, zerrendan izena emateko Botere Judizialean sartzeko baldintzak bete behar izatea, eta abar.

Honekin bukatu aurretik, aintzat hartu behar dugu justiziako gela osatzeko ordezko magistratu bat baino gehiago ezin dela egon (BJLOaren 200.1. artikulua).

Horiez gain, **zerbitzu-betekizuna** dugu hirugarren bidea, aurretik epaileentzat aipatu dugun berdina da; horren bidez, magistratu batek bere postua uzten du denbora jakin batean hutsik dagoen beste postu bat betetzeko.

b) Magistratu txostengileak:

Justiziako gela osatzen duten magistratuak bat baino gehiago badira ere, gero, auzi bakoitzak magistratu bat izango du arduradun, frogak ondo aztertzea eta, batez ere, ebazpenak idaztea bere gain hartuko duena. Magistratu txostengilea izango da hori, eta haren eginkizun zehatzak Lege Organikoaren 205. artikuluan aurki ditzakegu, besteak beste: galdeketa eta frogaproposamenak aztertzea, gela edo atalaren aurka jarritako helegiteen berri ematea, ebazpenak idaztea, entzunaldi publikoan ematea, eta abar.

Txostenak banatzeko (hau da, magistratu txostengilea nor izango den esateko), legeak urte judizialaren hasieran irizpide objektiboetan oinarritutako txanda bat ezartzeko beharra aldarrikatzen du. Legezko epailearen printzipioarekin lotuta dago hori, alderdigabetasuna bermatzeko asmoz, magistratu txostengilearen izena prozesuaren lehengo ebazpenean jakinarazi behar baitzaie alderdiei horiek balizko ezeztapenak jar ditzaten.

Hala eta guztiz ere, auzi bakoitzaren epaia ematerakoan, magistratu guztien arteko bozketa egin behar da, adibidez, akusatua erruduntzat edo errugabetzat jotzeko. Bozketan litekeena da **magistratu txostengilea gehiengoaren kontra** egotea, hau da, azken epaiaren edukiaren aurka

azaltzea. Kasu horietarako legeak (206. artikuluan) xedatzen du boto partikularra egingo duela eta epaia idazteaz beste magistratu bat arduratuko dela.